

Kaixo!


2024-2025 ikasturtea hasi den honetan, Gabiriako Goruntz Dantza Taldeak ere hasi du bere ikasturtea. Dantza Talde honetan **4 urtetik gorako** pertsona orok du izen emateko aukera, hau da, **2020. urtean jaiotakoak txikiak** izanik. Entseguak larunbat arratsaldeetan izan ohi dira herriko plaza eta dantza-lekuan.

Aurten hasi behar den umeen taldea sortzea apuntatzen den ume kopuruaren arabera izango da. Horretarako, ikasturte honetan dantzan hasteko interesa duten umeek 610115750 mugikorrera deitzea edo goruntzdantzataldea@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidaltzea eskertuko genuke Azaroaren 2a baino lehen.

Anima zaitzete! Lagun berriak egin eta euskal giroan murgiltzeko aukera bikaina baita!

Eskerrik asko eta ondo izan,

Goruntz Dantza Taldea.



Gabiria, 2024ko Irailaren 14a